



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 22a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzeko baldintza-orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna. Gizarte Politiketako Batzordeak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Religi3n y Escuela. Una realidad de futuro” izeneko biltzarrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitaterako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekursoan formalki agertzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívicaen alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, epe luzeko langabeen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko baldintza-orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordeak, 2014ko maiatzaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko baldintza-orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko baldintza-orrietan ezar dezan enpresa esleipen-hartzaileek langileei dagokien sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna”.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 7ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiez (8-14-PES 00030). Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zer arrazoi egon dira Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko?

O-NOZeko Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzaren helburu eta eginkizuna da, besteak beste, eriaren arretarako unitateen homogeneizazioaren eta koordinazioaren gidari izatea, eta bermatzea unitate horiek berrikuntza iturri izanen direla bai zentro bakoitzerako bai O-NOZ osorako.

Eriaren arretarako unitateak 2013ko uztailetik daude zuzendaritza honen mende, baina bazuten mendekotasun funtzionala 2011tik, zuzendaritza hau sortu zenetik. Beraz, goian aipatutakoa garai hartatik izan da zuzendaritza honen helburuetakoa. Hartara, 2013ko uztailerako zuzendaritzak jada egina zuen unitate guztien, horien indarguneren eta hobetu beharreko arloen diagnostikoa.

Nafarroako Ospitalegunearen kasuan hobetu beharreko alderdietako bat izan da, zentro horretako zuzendaritzak berak ere aitortu duenez, Eriaren Arretarako Unitateari, zehatzago Unitateko buruari, erantzukizun handiagoa ematea erreklamazioak edota kexak kudeatzeko prozesuan, hain zuzen ere erreklamazioen erantzunak prestatzeko fasean, horrela Eriaren Arretarako Unitatearen izaera laguntzailea areagotzeko, ez dadin izan gure Osasun Sistemako erabiltzaileen eskaerak kudeatzen dituen unitate administratibo hutxa. Kudeaketa prozesuko parte hartze handiago hori jada ohiko jarduna da O-NOZeko Ospitaleen, Anbulatorioen eta Osasun Mentaleko Zentroen Sareko eriaren arretarako gainerako guneeetan. Horien arduradunek, erreklamazioa izapidetu ez ezik, erantzuna prestatzen laguntzen diete zuzendaritzei, gero kasuan kasuko zuzendaritzak erantzuna ebaluatu eta sina dezan.

Alegia, Eriaren Arretarako Zuzendaritzak uste du zentro bateko Eriaren Arretarako Unitateko arduradunak laguntza eta ezagutza eskaintzeko gai izan behar duela, eriari ematen zaizkion konponbidea eta erantzuna ahalik eta onenak eta gogobetekoak izan daitezen. Eriaren arretarako unitateek zubiarena egin behar dute erabiltzailearen, erreklamazioa jasotzen eta kudeatzen dituzten profesionalen eta Zuzendaritzaren beraren artean. Hori guztia gorabehera, zentroko zuzendaritzak edo Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzak ebaluatu eta sinatu behar du azken erantzuna.

Eriaren Arretarako Zuzendaritzak inguruabar hori azaldu zionean Unitateko buruari, planteamendu estrategiko orokorrako baten barruan azaldu noski, Unitateko buruak, gogoeta-tarte baten ondoren, uko egin zion zeregin horri, bere ardura-pekoren eremutik kanpokoa zela argudiatuta. Eriaren Arretarako Unitateak gako elementutzat jotzen zuen Unitateko buruak egitea lehenbiziko erantzun-proposamena, geroago zentroko zuzendariak

edo Eriaren Arretarako eta Kalitaterako zuzendaria arduradun goren gisa proposamen hori ebaluatu eta sinatzeko. Hortaz, Unitateko burua kargutik kentzea erabaki zen. Garrantzitsua da azpimarratzea erabaki hori 2013ko azaroaren 25ean jakinarazi zela, nahiz eta kargu-aldaketa eraginkorra urtarrilaren 15ean izan, Unitateko buru berriak ezin zuelako kargua lehenago hartu.

Nolanahi ere, buruz buru eta jendaurrean Yolanda Landa andreari adierazi zitzaion bezala, Eriaren Arretarako Zuzendaritzak txalotu eta eskertu egiten du hark Unitateko burutzan egindako lana eta benetan deitoratzen du behar zen adostasun-puntua aurkitu ez izana.

Zer irizpide baliatu dira Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko buru berria izendatzeko?

Eriaren Arretarako Unitateko buruak, Eriaren Arretarako Zuzendaritzaren iritziz, zenbait gaitasun behar ditu.

- Lidergorako gaitasuna.
- Lantaldeak kudeatzeko gaitasuna.
- Berrikuntzarako eta aldaketarako gaitasuna.
- Eriekiko harremanetarako gaitasuna eta esperientzia.
- Zentroaren ezagutza eta Nafarroako Ospitaleguneko profesionalekin lankidetzan aritzeko gaitasuna. Izan ere, kexen kudeaketan zuzeneko harremanak eduki behar dira haiekin zerikusia duten zuzendariordeak, zerbitzu, atal edota unitateekin.

Hortik abiatuta Concepción Molina izendatu da, Nafarroako Ospitaleguneko Pneumologia, Geriatria eta Eritasun Infekziosoen Zerbitzuetako Erizaintza Unitateko burua izandakoa, lan horretan oniritzi argia jaso duena bai bere mendeko langileen aldetik bai zentroko Zuzendaritzaren beraren aldetik.

Zer helburu zehatz ezarri dira Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzan burutza berriari begira, eta zer epe jarri dira horretarako?

Epe laburrera:

– Nafarroako Ospitaleguneko erien arretarako puntu guztiak koordinatzea eta haien jarduna homogeneizatzea, guztiak era berean eta ezin hobeki bideratu eta kudea ditzaten erabiltzaileen berriazko eskariak. Hauxe lortu nahi da: herritarrek aurkezten dituzten arazoak arretagune guztietan berdin kudeatzea, O-NOZeko erien arretarako gainerako unitateekin bat etorri eta ezarritako prozedurari jarraituz.

– Erreklamazioei erantzuteko lehen proposamena egitea, gero Eriaren Arretarako eta Kalitaterako zuzendaria hura ebaluatu eta sina dezan.

– Nafarroako Ospitaleguneko erien arretarako guneen kokaleku fisikoen egokitasuna azterzea.

– Unitateari atxikitako langileen lanpostuak definitzea lanbide-profilean oinarrituta.

Epe ertainera:

– Unitateko langileen prestakuntza beharrak aztertu eta prestakuntza plan bat proposatzea.

– Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea kalitate-adierazleen ebaluazioan eta jarraipenean, hobetu beharreko arloak proposatze aldera.

– Osasun arloko berrikuntza proiektuak bultzatzea, Nafarroako Ospitalegunean ematen den arretaren hobekuntzari begira.

– Hautematen den kalitatea neurtzeko proiektuetan aritzea Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzarekin batera.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke geuk ere uste dugula unitate horiek funtsezko eginkizuna dutela osasun-arretaren kalitatea hobetzeko, galderan aipatzen den bezala. Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzak hartzen dituen erabaki eta neurri guztiek helburu bakarra dute ahalik ongien baliatzea erien arretarako guneen lana, O-NOZ hobetu eta eraberritzeko iturri gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, anbulantziek, asistentzialek zein ez asistentzialek, duten balio-bizitzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Nafarroako osasun garraiorako kontratatuta dauzkan ibilgailuei buruz" (8-14-PES-00075). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka gaur egun osasun-garraio urgentea nahiz ez-urgentea ematen duten anbulantzien erabilera-egoerari buruzko plan bat egitea, alde batera utzita horiek zenbat urtez erabili diren?

Balio-bizitzaren goiko muga dauden anbulantzien kasuan –orain luzatu egin liteke muga hori–, arreta berezia eskainiko al zaie, horien erabilera-kalitateari dagokionez?

Anbulantziek bete beharreko baldintza tekniko-sanitarioak hurrengo araudian azaltzen direnak dira:

- 836/2012 Errege Dekretua, maiatzaren 25ekoa, errepide bidezko osasun-garraiorako ibilgailuen ezaugarri teknikoak, ekipamendu sanitarioak eta langileak ezartzen dituena.
- Lehendakaritza Ministerioaren 1435/2013 Agindua, uztailaren 23koa, Lurreko Garraioak Antolatzeari buruzko Legea errepideko osasun garraioari dagokionez garatzen duena.
- 8/2011 Foru Dekretua, otsailaren 7koa, Nafarroako errepide bidezko osasun garraioa arautzen duena.

Araudi horrekin bat, Osasun Departamentuak ziurtagiri tekniko-sanitarioak ematen ditu, ibilgailu berrien kasuan bi urteko balio-epea dutenak.

Ibilgailuak bi urtetik gora duenean, ziurtagiriak urtebeteko iraupena izanen du.

Bizitza erabilgarria gainditzen duten ibilgailuei dagokienez, garrantzitsua da esatea Osasun Departamentuak ez duela baimentzen 10 urteko bizitza erabilgarria gainditzen duten ibilgailuak erabiltzea.

Jo behar da bi urtetik gora duten ibilgailuen ziurtagiriak urtero berritu behar izatea behar besteko bermea dela anbulantziek zerbitzua baldintza egokietan eman dezaten.

Bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta osasun garraioaren zerbitzua (larrialdikoa nahiz arrunta) ematen duten enpresa esleipen-hartzaileen arteko kontratuen baldintza administratiboen orrietako 25. klausulak ezartzen du organo kontratatzailea, egokitzat jotzen dituen langileen bitartez, kontratan jasotako lanen kontrolaz arduratuko dela, eta kontratistak konpromisoa hartzen duela langile arduradunei kontrola errazteko.

Prestazioen eta Itunen Zerbitzuak erregulartasunez eskatuko die enpresa esleipen-hartzaileei itundutako zerbitzua emateko erabiltzen diren ibilgailuek nahitaez eduki behar dituzten dokumentu guztiak gaurkotuta bidaltzeko: garraio-txartela, ziurtagiri tekniko-sanitarioa, nahitaezko aseguru eta ibilgailuen azterketa teknikoaren ziurtagiria. Hartara segurtatuko du ibilgailu guztiek betebeharrak administratiboak eta legedia indardunean adierazitako baldintza teknikoak betetzen dituztela.

Hori guztia dela eta, jotzen dugu Osasun Departamentuak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ezarritako eta betetako ikuskapen-araubidea egokia dela, eta osasun garraioaren zerbitzua ematen duten ibilgailuen kalitatea bermatzen duela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, Tuterako eskualdean osasun-garraioaren zerbitzua emateari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak idatziz erantzuteko galdera du Tuterako eskualdeko osasun-garraioaren zerbitzua 2014ko lehen seihilekoan emateko laguntza-kontratuari buruz (8-14-PES-00080). Hau erantzundio Nafarroako Gobernuo Osasuneko kontseilariak:

Egia al da azkenean eman gabe gelditu dela Tuterako osasun-barrutirako osasun-garraioaren zerbitzua emateko lizitazioa?

1. Bai, egia da esleipenik ez dela izan azkenean, zeren eta aurkeztu zen enpresa bakarrak ez baitzuen zuzendu eskatu zitzaion dokumentazioa.

Baiezkoan, eman gabe gelditze horrek zer ondorio izanen lituzke Tuterako osasun-barrutirako osasun-garraioaren zerbitzua emateari dagokionez? Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatuta al dauka eskualde horretan oinarritako zerbitzu hori ematen jarraitzea?

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zerbitzuekin jarraitzeko akordio batera iritsi da aurreko kontratuaren esleipen-hartzailea izan zen enpresarekin (GGSS, S.L.). Akordio horren bidez, bermatzen da osasun garraioa emanen zaiela 2014an zehar, larrialdikoa nahiz arrunta, Tuterako eskualdean bizi direnei. Bitartean, egiten ari garen azterlanak ematen dituen ondorioekin lanena jarraitzen dugu. Izan ere, azterlanak kalitate handiagoz zehaztuko ditu osasun-garraio ororen lizitazio-baldintzak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 2an.

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin-dako galderaren erantzuna, mugako nortasun-nahasmenduaren laguntza integratuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du mugako nortasun-nahasmenduari buruz (8-14/PES-00084). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

- Zer baliabide daude gaixo horien tratamenduari erantzuteko eta horientzat aurreikusitako kontrol eta jarraipena egin ahal izateko?

- Zein da pertsona horientzako laguntza eta errehabilitazio psikosozialeko protokoloa?

- Zein da pertsona horientzako egonaldi ertain eta luzeko ohe-kopurua? Eta horietatik, zeintzuk dira publikoak eta zeintzuk dira itunpekoak? Non daude kokaturik?

Mugako nortasun-nahasmendua pertsonen arteko harremanetan, afektuetan eta norberaren irudian ezegonkortasun iraunkorreko patroia bat da, zeinean inpultsuen kontrol eskasa gertatzen baita. Sindrome heterogeneoa da, mugatze zaila, giza-banakoen artean eta gaixo berarengan ere bila-kaeraren une desberdinetan aldatzen doazen aurkezpen kliniko eta jokaerakoekin.

Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean, osasun mentaleko zentroetan, 94 pertsona badaude jarduneko tratamenduan daudenak nortasunaren ezegonkortasun emozionaleko nahasmenduaren diagnostikoarekin, CIE 10aren arabera. Gaixo kopuru hori jaisten doa ospitale-baliabideei erreparatzen diegunean; izan ere, 27 gaixo dira ospitaleratze psikiatrikoko unitateetan artatzen direnak eta 12, berriz, eguneko zentroetan.

Ospitale-larrialdietan, ordea, kopuruak gora egiten du, eta krisi-egoeran 71 gaixo artatzera iristen da.

Nafarroan mugako nortasun-nahasmendua Nahasmendu Mental Larrirako programaren barruan dago, eta Nafarroako Osasun Mentalaren Sarean sartzen da.

- Osasun mentaleko 10 zentro
- Ospitaleratze psikiatrikoko 3 unitate:
 - 2 Nafarroako Ospitalegunean (27 eta 25 ohe, hurrenez hurren)
 - 1 (9 ohe) Tuterako Reina Sofía Ospitalean
- 3 eguneko ospitale orokor:
 - horietatik 2 Iruñean (20 toki bakoitzak)
 - 1 Tuteran (10 toki)
- Eguneko 2 ospitale monografiko, patologia komorbidoak artatzen dituztenak:
 - Adikzio nahasmenduak (15 toki)
 - Elikadurari buruzko jokaeraren nahasmendua (10 toki)
- Errehabilitazio Klinika: egonaldi ertain eta luzeko hiru programa
 - Eguneko Ospitaleraterako Programa: 32 toki
 - Ospitaleratze Osorako Programa (hiru aste-buru hartzen ditu): 16 ohe
 - Asteko Programa (astelehenetik ostiralera): 12 ohe
- Egonaldi Ertainetarako Unitatea, Aita Menni Klinikarekin itundua. 28 ohe eskaintzen ditu Iruñean

Azpiegiturak hobetzeko plan bat badago, zeinak aurreikusen baitu Iruñeko "San Francisco Javier" Zentroan kokatuko diren Egonaldi Ertainetarako Unitate berri bat eta Egonaldi Luzeetarako Unitate bat. Horrek hobekuntza bat ekarriko du populazio horri eta Nahasmendu Mental Larriek ukitutako populazio osoari ematen zaien arretan. Plan horrek aurrera jarraitzen du, betiere tamaina horretako obra baterako behar diren epeei lotuta. Aurreikusita dago haien exekuzioa 2014an hastea. Bestalde, Gizarte Politiketako Departamentuaren Nahasmendu Mental Larrirako Programak egoitzetarako eta errehabilitaziorako baliabide itun-

duen aukera zabala dauka, hain zuzen ere mugako nortasun-nahasmendua dutenek balia ditzaketenak, halako tratamenduak agintzen bazaizkie:

- Gaixo mentalentzako egoitza lagunduetako tokiak:

- 42 toki Iruñean, Aita Menni Klinikian.

- 40 toki itundu Elizondon, Benito Menni Ospitale Zentroan.

- Tutoretzapeko pisuak, guztira 18 tokirekin. Iruñean daude eta Aita Menni gaixo mentalentzako egoitza lagunduko lantaldeak ikuskatzen ditu.

- Etxebizitza gainbegiratuak: 4 toki Tuteran

- Laguntza duen etxebizitza: 4 toki Iruñean

- “Félix Garrido” egoitza-etxea: 25 toki Sarrigurenen.

- Errehabilitazio psikosozialeko zentroa (EPSZ): 165 toki (Tuteran, 35; Lizarran, 35; Elizondon, 25; Iruñean, 70)

- Esku-hartze soziokomunitarioko 2 lantalde.

Halere, baliabideak eskuragarri dauden arren, tresna desberdinen arteko tratamenduaren integrazioa hobetzeko aukera zabala dago, bai eta diagnosi horrek ukitutako gaixo eta senideei arreta emateko berariazko programak garatzeko ere. Hori dela eta, Nafarroako Osasun Mentalaren 2012-20156 urteetarako Plan Estrategikoak bere helburuen artean sartzen du zeharkako izaera duten laguntza-programak garatzea, horren barne direla nortasun-nahasmendu larriak.

Hartara, 2013ko azaroan, mugako nortasun-nahasmenduak artatzeko zeharkako programen lantaldea eratu zen. Diziiplina anitzeko talde bat da, zeinean Nafarroako Osasun Mentalaren Sareko 8 profesionalak hartzen baitute parte: 3 psikologo, 2 psikiatra, erizain bat, gizarte langile bat eta Osasun Mentalaren Zuzendaritzako ordezkari bat. Halaber, programaren planeamendu integratzailea errazte aldera, taldean sareko laguntza-baliabide desberdinetako profesionalak sartu dira: osasun mentaleko zentroa, eguneko zentroa eta Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

Lantalde horren xedea da laguntza programa integratu eta integral bat egitea, laguntza-tresna guztiak, berekiak eta itunduak, orokorrak eta berariazkoak, jasoko dituen, populazio-talde horri ahal den arretarik onena emateko. Hauek dira berariazko helburuak:

- Gaixoaren tratamenduari laguntza jarraitutasuna eta koordinazioa emanen dizkion arduraduna finkatzea.

- Ebaluazio estandarizatu bat egitea, honakoak jasoko dituen:

- Nortasunari buruzko galdetegiak

- Aurre egiteko estrategiak

- Nahaste mental komorbidoak

- Gizarte eta familia egoera

- Laguntza-baliabideetara deribatzen irizpideak ezartzea eta haiek erabiltzea gaixoaren laguntza-prozesuan

- Baliabideen arteko koordinazio-bideak ezartzea

- Populazio talde horri zuzendutako programa terapeutikoak egitea laguntza-baliabide bakoitzean, esku-hartze psikoterapeutikoan azpimarra berezia jarritz.

Lantaldea hilean behin biltzen da, eta aurreikusita dago programaren prestaketa 2014ko abenduan amaitzea. Haren ezarpena eta ebaluazioa hurrengo urtean eginen dira.

Lantalde hori baino lehen, Osasun Mentaleko Zentro batean mugako nortasun-nahasmendu larriko taldeko tratamendu psikoterapeutikorako protokolo bat jarri da abian. Haren ebaluazioa egin ondoren erabakiko da egokia den osasun mentalek gainerako zentroetara zabaltzea. Talde partzialki itxia da (modulu bakoitzaren hasieran deribazio berri bat egiteko aukera ematen duena). Orientazio dialektiko eta jokaerakoa du. Gaixoak 8 eta 12 bitarte izanen dira. Saioak astean behin izanen dira eta 120 minutuko iraupena izanen du. Programak 29 saio dauzka, eta haietan, planteamendu dialektiko eta jokaerako batetik abiatuta, gaixoak entrenatuko dira honako gaitasunak eskura ditzaten:

- Kontzientzia-trebetasunak

- Pertsonen arteko eraginkortasuneko trebetasunak

- Emozioak erregulatzeko trebetasunak

- Ezinegona toleratzeko trebetasunak

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, “Religión y Escuela. Una realidad de futuro” izeneko biltzarrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak egindako galderaren erantzuna, “Religión y Escuela. Una realidad de futuro” izeneko biltzarrari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 4ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza jaunak galdera egin du (8-14/PES-00067) “Religión y escuela. Una realidad de futuro” izeneko biltzarrean Hezkuntza Departamentuak parte hartzeari buruz. Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak:

Lehen-lehenik kontseilari honek bere erabateko desadostasuna adierazi nahi du idatzizko gal-

dera honen azalpenean ageri diren zenbait balorazio edo juzku direla-eta.

Hona erantzunak:

kontseilari hau hasierako ekitaldian izan da, eta Departamentuko kide batek mahai-inguru batean parte hartu du; horixe izan da lankidetzak.

Jarduera prestakuntza-jardueratzat hartu da ziurtapenaren ondorioetarako (IAI), beste jakintzarlo edo eremu batzuetan antolatzen diren antzeko jarduerak bezala (jardunaldi, biltzar eta abarrek).

Lankidetzak ez dio gastu ekonomikorik ekarri Departamentuari.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko apirilaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko martsoaren 28ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta

jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du EITB LTDren bidez hartze aldera Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak osatutako batzorde mistoari buruz (PES- 00058). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak osatutako lantaldea bi aldiz bildu da: 2014ko urtarrilaren 17an eta 2014ko maiatzaren 5ean. Bi bilerak Nafarroako Jauregian egin ziren eta honako hauek bertaratu ziren: Nafarroako Gobernuaren aldetik, Juan Luis Sánchez de Muniain, bigarren lehendakariorde eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria; Edurne Elío, Komunikazioko zuzendari nagusia; eta Alfredo Huarte, Departamentuko

idazkari nagusi teknikoa; eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Carmelo Arcelus, Administrazioako eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea; Jesús Peña Martínez, Lehendakari izateko idazkari nagusia; eta Mikel Agirre, EITBko Ustiapen eta Ingeniaritzako zuzendaria.

Lehenengo bileran Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari informazioa eskatu zion euskal telebista publikoak Foru Komunitatean hedatu duen sareaz eta horren lege-egoeraz. Sare hori, dirudienez, ETBk 2013ko bigarren seihilekoan digitalizatu duena da, eta foru lurraldean kanal publikoak ikusi ahal izateko erabili nahi zen, EITBri esleitu ez zaion maiztasun bat hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldera mugatzen baita haren emisiorako lizentzia.

Eusko Jaurlaritzak bidali zuen eskatutako informazioa eta hura aztertzeke egin zen bigarren bilera, maiatzaren 5ekoa. Bilera horretan, Nafarroako Gobernuak prentsa ohar batean azaldu zuenez, Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari adierazi zion ETBk Nafarroan hedatutako seinale analogikoa digitalizatzeko igorritako proposamena legez kontrakoa dela, hura gauzatu ahal izateko Nafarroako LTDko maiztasunak hartu behar direlako eta Ministerioak ez duelako horretarako baimenik eman. Nafarroako Gobernuak, halaber, araudian ezarritako prozedurak bete ditzala eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, hots, bi erkidegoen arteko protokoloa eta hitzarmena sinatzea, Ministerioari multiplex bat eskatzea eta multiplex hori Foru Komunitatean hedatzea.

Nafarroako Gobernuak EAERI adierazi zion Nafarroako erakunde-errealitatearen eta nafarren interesen errespetua izan behar dela legezko urrats horiek egiteko abiapuntua. Ildo beretik Foru Gobernuak gogora ekarri zion nola Nafarroako eta EAeko gobernuak 2009an sinatutako lankidetzaprotokoloa, UPNren eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren arteko adostasunak ahalbidetu zuena, Eusko Jaurlaritzak bere kabuz hautsi zuen EAJ boterera iritsi zenean, EAERen eta Foru Komunitatearen lurralde-batasuna irudikatzen duten mapak emitituz, protokoloa hirugarren klausularen kontra, bertan Nafarroako erakunde-errealitatea errespetatzeko agintzen baitzen.

Proposatu zuen, era berean, nafarren interesenganako errespetuaren erakusgarri gisa, ETBk utz diezaiola eskubideak erosteari Nafarroan berak soilik emititzeko ikus-entzunezko zenbait eduki, esate baterako pilota partidak, hartara Nafarroan lizentzia baduten telebistek partida horiek erosi eta emititu ahal izan ditzaten; edo, bestela, telebista horiekin ados jar dadila horren inguruan.

Bileraren ondoren Eusko Jaurlaritzak proposamen bat prestatzeko konpromisoa hartu zuen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketa Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak epigrafe bakoitzean 2005. urtetik hona hartu dituen ebazpenei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordearen ebazpenak Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratzeari buruz (PES-00072). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Galdera horretan, Departamentuaren webgunean argitaratu diren Hitzarmenaren Arbitraje Batzordearen ebazpen batzuk aipatu ondoren, honako hau adierazten da: "Informazio horren azterketatik ondorioztatzen dugu oso gutxi direla Arbitraje Batzorde horren esku-hartzea merezi duten gatazkak, edo ez dela ematen bere ebazpenen gaineko gutxieneko informazioa baino."

Gero, hedabideetan argitaratu omen diren informazio batzuk aipatzen dira (zehaztu gabe), eta informazio hau idatziz emateko eskatzen da:

1. Hitzarmen Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, epigrafe bakoitzean, 2005. urtetik hona, hartu dituen ebazpenen zerrenda.

2.- Ebazpen horietako bakoitzaren kopia.

Parlamentari jaunak itsura denez errezelo edo susmoa du webgunean ez dela ematen Arbitraje Batzordearen ebazpenen gaineko gutxieneko informazioa baino, eta uste dut lehenik susmo horri erantzun behar zaiola. Zerbitzu teknikoek azaldu digutenaren arabera susmo erabat okerra eta funtsik gabea da. Izan ere, segidan frogatuko

denez, webgunean arbitraje organo horren ebazpen guztiak eskaintzen dira, hiru izan ezik.

Hiru salbuespen horiek egin dira atzera egite batekin (29. gatazka) eta jarduketak artxibatze bi ebazpenekin (53. eta 58. gatazkak), eta interes urrikoak izateagatik utzi dira argitaratu gabe. Arbitraje Batzordeak auziaren muina aztertu ez duenez (kasu batean atzera egin delako eta beste bietan jarduketak artxibatu direlako), ez dirudi ebazpen interesgarriak direnik internautentzat. Hala ere, beste ikuspuntu batzuetatik baliteke interesgarriak izatea eta foru parlamentariaren eskaerari erantzute aldera pdf fitxategi batean erantsi dira, haien edukiaren berri izan dezan.

Ondoren esan beharra dago galdera egin duen parlamentariak, webgunean argitaratutako ebazpenen zerrenda jarri duenean bere idazkian, ahaztu egin duela bigarren ataleko (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, PFEZ) 19 ebazpen jartzea, atal horretako hiru ebazpen baizik ez baititu aipatzen: 37/2011, 31/2011 eta 14/2007 gatazkei buruzkoak.

Baina ziur aski ez da ohartu atal berean lau azpiatal daudela eta lehenengoan (PFEZ. Zergadunen helbide-aldaketari buruzko ebazpenak) beste 19 ebazpen jaso direla, guztiak ere zergadunen helbide-aldaketaren inguruko gatazkei buruzkoak. Azpiatal horretako pdf dokumentuan edo word dokumentuan klik egin eta 19 ebazpen horiek eskura daitezke.

Behean dagoen taulan Arbitraje Batzordeak 2004. urtetik hona ebatzi dituen gatazka guztiak ageri dira. Taula hori webgunean argitaratutako ebazpenekin alderatzen bada, egiaztatu ahal izanen da Arbitraje Batzordeak gaur arte ebatzitako gatazka guztien ebazpenak daudela webgunean, gorago aipatutako hirurak izan ezik.

Ikus daitekeenez, webgunean Arbitraje Batzordearen ebazpen guztiak daude (aipatutako hiru salbuespenak salbu), eta uste dut azken hiru horiek soilik eranstea nahikoa dela eskatutakoa betetzeko.

Bestalde, parlamentariak gaiari buruzko informazio gehiago behar badu, atsegin handiz emanen zaio.

INTERNETEN ARGITARATU DIREN ARBITRAJE BATZORDEAREN EBAZPENAK		
GATAZKAREN ZK.	EBAZPENAREN DATA	MULTZOA
1/2004	2005eko uztailaren 15eko Ebazpena	Askotarikoak
2/2004	2007ko urriaren 2ko Ebazpena	Oinordetzak eta dohaintzak
3/2007 eta 4/2007	2008ko ekainaren 5eko Ebazpena	BEZA
5/2007	2007ko azaroaren 6ko Ebazpena	Askotarikoak
6/2007, 7/2007, 8/2007 eta 9/2007	2007ko azaroaren 27ko Ebazpena	BEZA
10/2007	2008ko abenduaren 16ko Ebazpena	BEZA
11/2007	2009ko azaroaren 3ko Ebazpena	Bereziak
12/2007	2008ko abenduaren 16ko Ebazpena	BEZA
13/2007	2008ko abenduaren 16ko Ebazpena	Sozietateak
14/2007	2008ko abenduaren 16ko Ebazpena	PFEZA
15/2007	2008ko apirilaren 4ko Ebazpena	Askotarikoak
16/2007	2008ko apirilaren 4ko Ebazpena	Hitzarmen ekonomikoa
17/2007	2008ko apirilaren 4ko Ebazpena	Hitzarmen ekonomikoa
18/2008	2009ko azaroaren 3ko Ebazpena	BEZA
19/2008	2009ko azaroaren 3ko Ebazpena	Sozietateak
20/2008	2008ko urriaren 28ko Ebazpena	Sozietateak
21/2009	2011ko abenduaren 15eko Ebazpena	Askotarikoak
22/2009	2010eko irailaren 16ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
23/2009	2010eko urriaren 15eko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
24/2009	2011ko abenduaren 15eko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
25/2009	2010eko urriaren 14ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
26/2009	2010eko urriaren 14ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
27/2010	2012ko urriaren 13ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
28/2010	2010eko irailaren 17ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
29/2010 (*)	2010eko irailaren 10eko Ebazpena	Hitzarmen ekonomikoa
30/2010	2010eko azaroaren 16ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
31/2010	2012ko maiatzaren 17ko Ebazpena	PFEZA
32/2010	2012ko martxoaren 15eko Ebazpena	Sozietateak
33/2010	2012ko urriaren 13ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
34/2011	2012ko maiatzaren 17ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
35/2011	2012ko maiatzaren 17ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
36/2011	2012ko ekainaren 19ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
37/2011	37/2011 gatazkari buruzko ebazpena	PFEZA
38/2011	2012ko irailaren 17ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
39/2011	2012ko urriaren 26ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
40/2011	2012ko abenduaren 21eko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
41/2011	2012ko abenduaren 21eko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
42/2011	2013ko martxoaren 20ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
43/2011	2013ko otsailaren 22ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
44/2011	2013ko ekainaren 11ko Ebazpena	Sozietateak
45/2012	2013ko ekainaren 11ko Ebazpena	Sozietateak
46/2012	2014ko otsailaren 7ko Ebazpena	Askotarikoak
49/2012	2013ko azaroaren 7ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
50/2012	2013ko azaroaren 7ko Ebazpena	Hitzarmen ekonomikoa
52/2012	2014ko otsailaren 7ko Ebazpena	Askotarikoak
53/2012 (*)	2013ko ekainaren 11ko Ebazpena	PFEZA-Helbide aldaketa
58/2012 (*)	2014ko martxoaren 25eko Ebazpena	PFEZA

(*) Ez daude webgunean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: aipaturiko kopiak foru parlamentarien eskura daude Agora aplikazioan.)

Galdera, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitate-rako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Komunitaterako adostu duten gehieneko zorpetze-indizeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Bel-

trán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 2013rako ezarritako gehieneko zorpetze-indizeari buruz (PES-00073). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Baimendu den eta benetan lortu den gehieneko zorpetze-indizea %17,6koa da, hau da, baimendutako %16,4koa gehi AHTa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko apirilaren 25ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, defizit helburua ez betetzeak zor publikoa erostean interesen ordainketan dituen eraginei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du interesen ordainketaren gaineko eraginei buruz (PES-00076). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Lehenik, azaldu den bezala, Nafarroako Gobernuak ez dator bat Ogasun Ministerioak

2013ko defizit-helburua ez betetzeari buruz dabilen irizpidearekin.

Bigarrenik, urteko lehen hiruhilekoan Nafarroako Gobernuak jada 356,8 milioi euro finantzatu ditu, hots, ekitaldi osoko finantzaketa-beharren %62. Eragiketa horiek batez beste 9,2 urteko epe-rako eta batez beste %3,79ko tasarekin egin dira, Altxorak baino 23 oinarri-puntu gehiagorekin. Beste erkidego batzuen aldean finantzaketarako baldintza bikainak eta oso onuragarriak lortu dira.

Hirugarrenik, egindako azterketen arabera, Foru Komunitatearen kreditu-kalifikazioa aldatu ez denez, ez da uste finantza-kostuak handituko direnik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 9an

Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea ez baimentzeko arrazoiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera aurkeztu du, jakite aldera Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen baimendu Nafarroako Kutxaren aktiboak Caixabanki eskualdatzea (PES-00077). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Kutxak ez zion aktiborik eskualdatu Caixabank, S.A.-ri.

Nafarroako Kutxa Banca Cívica, S.A. taldearen babes sistema instituzionalari (BSI) atxiki zitzaion eta berari eman zion bere finantza-jarduera.

Geroago, 2012ko abuztuaren 2an, Banca Cívica, S.A. taldeak xurgapen bidez Caixa Bank, S.A. entitatearekin bat egiteko eragiketa Merkataritza Erregistroan inskribatu zen.

Eragiketa hori Foru Komunitatearen eskumetik kanpo dago erabat, merkataritza eragiketa

egin zuten bi kreditu-entitateak bankuak zirelako eta ez aurrezki kutxak. Beraz, ezin da aplikatu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 56.1.f) artikuluan ezarritakoa, Nafarroari aurrezki kutxen arloko eskumena ematen diona, deusetan eragotzi gabe hitzarmenen araubide berezia.

Esan beharra dago, halaber, Nafarroako Kutxak esparru juridiko berezia zuela, Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen artean hitzartutako bere estatutuen babesean, eta horietan ez zegoela inolako aurreikuspenik Nafarroako Gobernuak goian azalduetakoa bezalako prozesuetan esku hartzeari buruz.

Azkenik, bat egiteko eragiketaren egunean indarra zuten estatutuen arabera (Nafarroako Gobernuaren 2012ko uztailaren 18ko Erabakiaren bidez eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren 2012ko uztailaren 20ko Aginduaren bidez onetsitakoak), halako eragiketa onesteko eskumena Nafarroako Kutxako kontseilu Nagusiari zegokion, eta hark, eskumen hori erabiliz, 2012ko maiatzaren 22an onetsi zuen Caixabank, S.A.-k Banca Cívica, S.A. xurgatzea; Nafarroako Kutxa barruan zeukan Banca Cívica taldearen babes sistema instituzionala eragiketa horrekin amaitu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko apirilaren 28an.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sustapen Ministerioak aurreikusten duen trenbide-plangintzari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manuel Ayerdi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Sustapen Ministerioak indarrean duen trenbide-plangintzari buruz, Zaragoza-Castejón-Iruña korridoreari dagokionez, non aipatzen baita "Abiadura handiko korridoreen garapenerako eredu berria" izeneko agiri bat (PES 86). Hona Sustapen Departamentuak informatu behar diona:

Sustapen Departamentu honek ez zuen formalki ezagutzen galderan aipatzen den agiri hori; dena den, Sustapen Ministerioaren eta Adifere naz besteko webguneren batean aurkitu du.

Departamentu hau harremanetan jarri da Sustapen Ministerioa eta Adifeko arduradunekin, eta azken horiek ukatu dituzte abiadura handiko trenbide-korridoreen garapenerako ustezko eredu berri bati buruz dauden informazioak, eta aditzera

eman du aipatzen den lan-agiri hori ez zuela inongo organo eskudunek onetsi eta, horrenbestez, balio ofizial txikiena ere ez duela. Harremanetan jarri garen arduradun horiek zehazten dute agiri horretan –behin-behineko zirriborro bat zen– planteatutako hipotesiak geroko estrategiekin gaintitu zirela. Horrenbestez, berriz dio aipatzen den dokumentua guztiz balio gabeturik dagoela.

Horri dagokionez, Adifen webgune ofizialean argitaratutako 2013ko ekainaren 19ko prentsa-ohar batean, erakunde horrek honakoa zioen:

"Komunikabide batzuek argitaratutako informazioak, abiadura handiko korridoreak garatzeko Sustapen Ministerioak eta Adifek ustez onetsitako eredu berriari buruzko agiri bat aipatzen duenak, inongo baliorik ez du. Aipatzen den agiria, zeinak barneko eta behin-behineko izaera baitu, lanen programazioari buruzko hipotesi teknikoetako bat da, eta ez entitate horretako ez Sustapen Ministerioko inongo organo eskudunek ez du onetsi.

Gainera, aipatutako agiriak zenbait agertoki eta epemuga desberdin jasotzen zituen obren garapenerako eta exekuziorako; bada, horiek jada desfasatuta geratu dira zirriborroan jasotako informazioa gaintitzen eta baliorik gabe uzten duten geroko analisi estrategikoen bitartez."

Iruñean, 2014ko maiatzaren 5ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, CEN, UGT eta CCOO 2014ko Enplegu Planaren kudeaketa- eta erabakitze-organoko partaide izateak sortzen duen interes-gatazkari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Aierdi Olaizola jaunak informazioa eskatu du sindikatuek eta enpresa-erakundeek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kudeaketan parte hartzeagatik gerta litekeen interes-gatazkari buruz (PES-0082). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Kontuen Ganberaren txostenak dio ordezkari-tza handiena duten enpresa-erakundeek eta sindikatuek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendaritzan eta kudeaketan parte hartzeak gatazkak eragin litzakeela enplegurako lanbide heziketarako diru-laguntzen esparruko lankidetz-

hitzarmenatarako alde zurretik adostasuna emateari dagokionez.

Batzorde Iraunkorraren eskumena, sinatu behar diren lankidetz-hitzarmenei alde zurretik adostasuna emateari buruzkoa, ez da aplikatzekoa enplegurako lanbide heziketarako diru-laguntzen deialdien esparruan. Kasu horretan, enpresa-erakundeek eta sindikatuek ez dute onartzen arlo horretako erregulazioa.

Arau erregulatuak Estatukoak da (martsoaren 23ko 395/2007 Errege Dekretua), eta, horrenbestez, entitate horiek oinarriak beren interesen arabera egokitzeko aukerarik ez dago. Kasu horietan, entitate onuradunekiko hitzarmenen onespina eta sinadura gauzatzen dira deialdia ebatzi eta diru-laguntzak emateko ebazpena eman denean. Hitzarmen horien sinadura legez aurreikusita dago, eta haren xedea da emandako diru-laguntza exekutatzeko baldintzak zehaztea, legezko betekizunari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko maiatzaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekurtsioan formalki agertzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekurtsioan formalki agertzeko. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak informazioa eskatu du Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legearen aurka aurkeztutako konstituziokontarakotasun errekurtsioari buruz (PES-108). Hau erantzun dio Lehendakariak, Justizia eta Barneko kontseilariak:

Gobernuko lehendakariak 1453/2014 zenbaki-ko konstituziokontarakotasun errekurtsioa sustatu du Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzea baimentzen duen maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legearen 1. artikulutik 10.era bitartekoen aurka. 2014ko apirilaren 30eko Erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernuak dio hura aurkeztu izanaren eta izapidetzeko onartu izanaren jakinaren gainean dagoela.

Nafarroako Gobernuak ez du erabaki aipatutako konstituziokontarakotasun errekurtsioaren izapidetze horretara aurkeztuko den. Bestela ere, guztiz indarrean jarraitzen dute 2013ko apirilaren 30eko Erabakian jasotako gogoetak, zeinetan adierazten baitzuen ez zegoela ados Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzea baimentzen duen Foru Lege proposamena izapidetzearekin eta aintzat hartzearekin.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 2014ko maiatzaren 14an

Lehendakariak, Justizia eta Barneko kontseilariak: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, enpleguko politika aktiboetarako bideratzen den finantziarioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Aierdi Olaizola jaunak informazioa eskatu du Europako funtsen bidez egindako enplegu-politika aktiboari buruz (PES-0081). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Gaur egun konfirmatuta dago Europak finantziaketa emanen duela 2014-2020 urteetarako Europako Gizarte Funtsaren Programa Operatiboko Nafarroako Foru Komunitateko Erregio Programa egiteko. Finantziaketa hori 19.658.361 eurokoa da, eta programa lantzen eta diseinatzen ari da. Aurreikusita dago aurtengo bigarren seihilekoan onestea. Programa ez da bideratzen soilik enplegu-politikak egitera.

Programaren kofinantziaketa-tasa % 50ekoa izanen da; horrenbestez, Nafarroako Foru Komuni-

tateak munta bereko inbertsio bat egin beharko du (19.658.361 euro). Hori dela eta, programak hainbat jarduketa egiteko aurreikusita duen gastua 39.316.722 eurokoa da, 2014-2020 aldirako.

Halaber, konfirmatuta dago Europak dagokion finantziaketa emanen duela Gazteen Enplegurako Programa Operatiborako. Europar Batasunak programa horretara bideratutako guztizko zenbatekoa 8.853.119,50 eurokoa da. Programa lantzen eta diseinatzen ari da, eta aurreikusita dago maiatzaren amaieran onetsiko dela. Programa ez da bideratzen soilik enplegu-politikak egitera.

Programa horren kofinantziaketa-tasa % 50etik gorakoa da, zeren eta, alde batetik, YEI ("Youth Employment Initiative") funts gehigarritik elikatzen baita –funts horrek % 100eko kofinantziaketa tasa dauka–, eta, bestetik, Europako Gizarte Funtsetik beretik, zeinak bi kofinantziaketa-tarte desberdin baitaizka. Orokorrean, horrekin guztiarekin, Nafarroako Foru Erkidegoak 11.248.578 euroko inbertsioa egin beharra dauka, Europar Batasunaren eskutik erregioan hitzartuta daukan 8.853.119,50 euroko kopurua jaso ahal izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko maiatzaren 9an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívica-ren alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxan dituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívica-ren alde banatzea baimentzeko erabakirik ez hartzeko arrazoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, apirilaren 10eko 1153 sarrera-zenbakia duena, jakiteko Nafarroako Gobernuak zergatik ez zuen hartu Nafarroako Kutxan zituen aktiboak eta pasiboak Banca Cívica-ren alde banatzea baimentzeko erabakirik (8-14/ PES 00085). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Lehenengo, esan beharra dago Nafarroako Gobernuak 2010eko maiatzaren 17ko erabakiz onetsitakoak zirela finantza-negozioa Nafarroako Kutxa atxiki zitzaioneko babes sistema instituzionalera ekartzea erabaki zen unean indarrean zeuden estatutuak.

Estatutu horiek, zeinek entitatearen funtzionamendua arautzen baitute, 31. artikuluan diote kontseilu Nagusiaren eginkizunen artean dagoela entitatearen bat-egite edo banantze guztizkoa edo partziala onestea, bai eta entitatearen desegitea dakarren beste edozein integrazio-modu edo akordio ere.

Bestalde, aipatutako estatutuen 71. artikulua aurreikusten du Entitate Sortzaileen Batzarrak alde aurretiko eta aginduzko txostenak egitea entitatearen egiturazko aldaketei buruz, eta, bereziki, bat-egiteei, banantzeei, negozioen lagapen orokorre, aliantzei eta beste finantza-entitate batzuekiko integrazio akordioei buruz.

Bestetik, finantza-negozioaren ekarpena egiteko unean indarrean zeuden estatutuek, 1. zenbakian, ezartzen dute Nafarroako Gobernuak entitatearen babeslea izanen dela, eta inolaz ere ez diote inongo eskumenik aitortzen ekarpen horri dagokionez.

Nafarroako Aurrezki Kutxak, entitate sortzaile pribatua den aldetik, kontseilu Nagusiaren 2011ko maiatzaren 18ko erabakiaz eta Entitate Sortzaileen Batzarrak alde aurretik txostena emanda, finantza-negozioa babes sistema instituzionalera ekartzea onetsi zuen urte bereko apirilaren 23an, hartara estatutuetan ezarritako betebeharrak betez.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gobernuaren jarduketa Zuzenbidearen arabera izan zen, zeren eta ez baitzuen eskumenik entitatearen bat-egite, banantze edo eraldatzei buruzko erabakiak baimentzeko, zeren eta entitatearen estatutuek ez baitzuten halakorik aurreikusten.

Aurrekoa gorabehera, gaur egun indarra duten estatutuek bai jaso dituzte Babesletzak bete beharko lituzkeen eskumen batzuk, besteak beste fundazioaren bat-egitea baimentzei dagokionez (52.2.i) artikulua).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, epe luzeko langabeen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, epe luzeko langabeen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei eta datozen urteetarako aurreikusten direnei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko apirilaren 22ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du epe luzeko langabeen eta 45 urte baino gehiago dutenen enplegagarritasuna sustatzeko asmoz 2014an indarra duten politikei buruz (8-14/PES-83). Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

2014. urterako luzatu den IV. Enplegu Planean xedatuaren arabera, bai 45 urtetik gorako pertsonak, bai iraupen luzeko langabetuak lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren programa eta neurrietan.

Enplegu sustapenaren esparruan, 45 urtetik gorakoen enplegagarritasuna eta kontratazioa sustatzen dira (batzuetan, 50 urtetik gorakoak dira), bai eta iraupen luzeko langabetuena ere, bi formularen bitartez: edo bi kolektibo horiei zuzendutako proiektuei puntuazio handiagoa emanez, edo diru-laguntza handiagoa emanez baldin eta haien kontratatzen badira edo prestakuntza ematen bazaie.

Zehazki, 45/50 urtetik gorakoen eta iraupen luzeko langabetuen kontratazioa sustatzea honako programa hauetan gertatzen da:

Toki entitateek langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak, obretarako edo interes orokor edo sozialeko zerbitzuetarako. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 2.595.000 eurokoa da.

Irabazi asmorik gabeko entitateek langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak, interes orokor edo sozialeko zerbitzuetarako. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 482.500 eurokoa da.

Gizarte-ekonomiako enpresentzako diru-laguntzak, bazkideak sar daitezten. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 595.405 eurokoa da.

Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko proiektuetarako diru-laguntzak. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 141.945 eurokoa da.

Gizarte bazterketako egoeran eta 50 urtetik gorakoak kontratatzeko diru-laguntzak gizareratzeta eta laneratzeta zentroetan. 2014. urtean, programa horren aurrekontua 1.298.000 eurokoa da.

Enplegurako lantegi-eskoletarako diru-laguntza. 2014. urtean, programa horren aurrekontua 4.008.470 eurokoa da.

Autonomo gisa ezartzeko diru-laguntzak. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 1.008.425 eurokoa da.

Prestakuntzaren esparruan, kolektibo hauek lehentasunezko zatitza jotzen dira langabetuei zuzendutako prestakuntzarako diru-laguntzen deialdietan. 2014. urtean, deialdi horretarako aurrekontua 3.618.750 eurokoa da.

Orientabidearen esparruan, 2013-2014 urteetarako Nafarroako Enplegurako Orientazio Planaren bitartez, aipatutako kolektiboak artatu ziren, haien enplegagarritasuna hobetzeko, eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak eta enplegurako eta auto-enplegurako beste ekintza batzuk egin ziren. Programa horren aurrekontua 597.864 eurokoa da.

Honakoak dira programa horretan 2013an lortutako emaitzak:

Kolektiboa	Arreta jaso duten pertsonen kopurua	Eskaintzetara bideratutako pertsonak	Kontrataturako pertsonak	Prestakuntzara bidalitako pertsonak	Auto-enplegu zerbitzuak hasitako pertsonak
45 urtetik gorakoak	7.463	2.691	2.728	383	65
Iraupen luzeko langabetuak	5.985	1.931	1.101	369	40

Datozen urteetan politikak zehaztuko dira lan-tzen ari den Enplegu Plan berria ezartzen denaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

